

2017ko apirilaren 21a, ostirala

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

## 2035

*AGINDUA, 2017ko apirilaren 11koa, Lan eta Justiziako sailburuarena, Lan eta Justizia Saileko behin-behineko langile baten kargu kentzea xedatzeko dena.*

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluan jasotakoa aplikatuz, ondoren zehaztutako kargu-uztea formalizatzen dut. Horrela, bada, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Ramón Azkue Manterola jauna Lan eta Justizia Saileko Lan Arloko aholkulari kargutik kentzen da (kodea: 5291; dotazioa: 1), beste kargu baterako izendatu baita.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2017ko apirilaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11.

Lan eta Justiziako sailburua,  
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.